



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/02/01

Bizkaiak, egoera "berezetan" dagozan adinbakoak jasotzeko "bost familia" behar ditu

Bizkaiak, egoera berezian dagozan neska-mutikoak "une oro" jaso ahal izateko "bost familia" behar ditu. Abagune bereziak eta behar bereziak dituen adinbakoak dira batez be, sarritan anai-arrebak, borondatezko familiako harrera jasoteko gaiztasunak dituenak edo programa horretan lekurik aurkitzen ez dabenak. Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatu andreak, zaintzapean dagozan adinbakoen familiako harrera programa "profesionalizauaren" balantzea egin daian Bizkaiko Talde Popularrak eskatu dauen agerraldian emon dau datu hori.

Diputatu andreak adierazo dauenez, programa hori 2014. urtean hasi zan, esperientzia "pilotu" baten bitartez. Hasera batean, Bizkaiko "78" familiak emon eben izena esperientzia horretan, eta horreetatik "4k" hartu eben parte harrera prozesuagaz hasteko Aldundiak emondako prestakuntza prozesuan, eta horreetatik "bakarra" izan zan haurtzaroko zerbitzuaren behin behineko onespina jaso ebana. Roblesek adierazo dauenez, Haurtzaroko zerbitzuagaz hartu emonetan jarri ziran pertsonen artean "%75" emakumeak izan ziran; "%42" 25 eta 34 urte artekoak ziran, eta beste %33" 35 eta 44 urte artekoak; eta "%45ak" ez eban beteten programak eskatzen eban laneko esperientziaren erespidea.

Datu horreek emon eta gero, Sánchez Roblesek adierazo dau harrerea egiten daben familiek bete beharreko baldintzak "zorrotzak" dirala, borondatezko harrerarako eskakizunei, kasu horreetan titulazino berezia eta aurretiazko esperientzia gehitzen jakezalako. Holan, familiako tutoreak gizarte hezkuntzako, haur psikologiako edo pedagogiako titulua eta "gitxienez urte biko" esperientzia izan behar dau, eta, horrez gain, "erabateko dedikazinoa" eskini, beste eskakizun batzuen artean. Pertsona hartzaile profesionalak laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea dau.

Diputatu andreak azaldu dauenez, esperientziak erakusten dau adinbakoia familia baten barruan zaintzeak, urte gitxiko adinbakoak diranean, batez be, egoitza batean eskintzen jaken arretan baino "garapen pertsonal hobea" lortzen dauela. Bere berbetan, borondatezko harrera programa "emaitza onak" ari da eskintzen. Bizkaiko azken datuek, harrerako familietan "327 ume" dagozala adierazoten dabe.

Behar "bereziak" dituen adinbakoen soslaiari jagokonez, eta "kasu bardin bi" ez dagozan arren, orokorrean, "arazo psikopatologikoak dituen nerabe aurrekoak edo nerabeak, anai-arrebek osatutako taldeak edo euren jatorrizko familiara itzultzeko aukerarik ez daben 10 urtetik gorako umeak" izaten dira, Sánchez Roblesek azaldu dauenez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Aldundiko arduradunak esan dau programa pilotua joan dan “urtarrilaren 26an” amaitu zala, eta bere sailaren helburua “aurrera jarraitzea” dala, une honetan “stand by” egoeran dagoan arren, Bizkaian aurrera eroaten ari dan esperientziaren erdian, arauzko eremu bat sartu dalako indarrean, Umeak eta Nerabeak Babesteko garagarriaren 28ko 26/2015 legea, hain zuzen be.

Lege horrek “ondorio juridikoak” izan ditu, eta hori dala eta, sailak gogoeta epealdia hasi behar izan dau, Bizkaiko Aldunditik hasitako programak aitatutako legedia hori beteten dauen ala ez ikusteko. Roblesek adierazo dauenez, Aldundiko zerbitzu juridikoek Bizkaian hasitako programak “legeak dituan eskakizunak beteten dituela” ondorioztatu dabe eta, hori dala eta, Aldundiaren “borondatea” programagaz “jarraitzea” da, programak “izen bat edo beste izaten badau be”, funtsezkoena, oinarritzkoena, “umeen ondo izaterako erantzunak emotea” dalako.

BATZARRETAKO TALDEAK

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira gizarteko arazo horri erantzun ahal izateko Aldundiak hasi dauen programea azpimarratzeko orduan, euren eretxiz familia barruko harrerea dalako soluzinorik hoberena ume horreentzat, harrerako etxeen edo egoitzen aurrean. “Hasera batean egoitza handietan sartzen genduzan, gero etxeetan eta orain, familietan. Beste pausu bat da”, azpimarratu dau Juan Otermin batzordekide sozialistak, eta programak “ibilpide luzea” dauela gogoratu dau. “Aldundiak ondo egin dau etenalditxo hori hartzean, programea normaltasunez aurrera eroan ahal izateko”, esfortzua “autortzeak merezi dauelako” eta ildo “zuzena” daroalako, esan dau.

Zuriñe Argatxa jeltzalearen berbetan, esperientzia pilotu horren balorazioa “positiboa” da. “Pazientzia” eskatu dau, programagaz “ahalik eta arinen” jarraitu ahal izateko, eta programan sartzeko baldintzak “oso garrantzitsuak” dirala azpimarratu dau. Bere eretxiz, esfortzu handia egin behar da, familia gehiago animau daitezcan programan parte hartzera, sentsibilizazio kanpainen bitartez.

Horri jagokonez, Josu Unanue EH Bilduko bozeroaleak, gizarte sentsibilizaziorako “beste bide batzuk” erabilteko eskaria egin dau, mezua “ez dalako heldu”. Programagaz “aurrera jarraitzearen” alde agertu da, baina bere “zalantzak” agertu ditu, Aldundiak zerbitzu hori erakunde pribadu baten bitartez “kanpora atara behar” horren aurrean. Bere eretxiz, Aldundiak epe bat jarri beharko leuke lantaldea handitzeko. PP taldeak egindako erantzun-eskeen ostean, proba pilotuaren esleipenduna Agintzari Gizarte Ekintzako Kooperatibea izan zala jakinarazo dau Sánchez Roblesek. Aurretik, Oterminek esan dau Gobernu Zentralaren legeak “debekau” egiten dauela programa hori baliabide propioak erabiliz gauzatu ahal izateko sektore publikoan kontratazioa egitea.

Podemos Bizkaiako Nuria Atienzak, bere aldetik, familia “bakarra” izatea aukeraketa prozesua gainditu dauena penagarria dala esan dau. Hori egiaztatu aurretik Gipuzkoako esperientzia azpimarratu dau. Bere esanetan, Gipuzkoan harrerako “26” familia dagoz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Lurralde horretako programea “oso aurreratuta dago, lehenago hasi ziralako”, diputatu andreak autortu dauenez, eta adierazo dau Bizkaiko esperientzia Gipuzkoakoagaz eta beste eredu bat jarraitzearen aldeko apustua egin dauen Arabakoagaz alderatzen dabilzala “ikuspegi teknikoak” erabiliz.

Sánchez Roblesek esan dauenez, bere eretxiz familien harrerako aukeraketa prozesuaren emaitza horren zergaitia ez da sentsibilizazino kanpainarik ez egotea edo desegokiak izatea, “mila modutara” egin dalako. Emaitza horren zergaitia Bizkaiko esperientziaren ibilpide laburrean, dagozan eskakizun “zorrotzetan”, eta holango adinbakoak norberaren etxean eta familian hartzeko erabagia “gaitza” izatean dagoala uste dau, erabagi horrek “erantzukizun handia” eskatzen dauelako. Bukatzeko “bere eskerrona” adierazo gura izan deutse familia horreei, profesionalizautako programan izena emoteko erabagia “oso-oso ausarta” dalako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

01/02/2016

Bizkaia necesita "cinco familias" para acoger menores en circunstancias "especiales"

De manera “constante”, Bizkaia necesita “cinco familias” para acoger a niños y niñas en situación especial. Se trataría de menores que reúnen unas circunstancias específicas, necesidades especiales y grupos de hermanos principalmente, que tienen dificultades para beneficiarse del acogimiento familiar voluntario o no encuentran cabida en el mismo. La diputada foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha ofrecido este dato en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia, solicitada por el grupo Popular Vizcaíno que pedía un balance sobre el programa de acogimiento familiar “profesionalizado” de menores tutelados.

Según ha informado, este programa se inició en el año 2014 mediante una experiencia “piloto” en la que se apuntaron inicialmente un total de “78” familias vizcaínas, de las cuales “4” llegaron a participar en el proceso de formación de la Diputación para iniciar el proceso de acogimiento y, de éstas, finalmente “una” logró el plácet definitivo del servicio foral de Infancia. Robles ha destacado que, entre las personas que contactaron con el servicio de Infancia, el “75%” fueron mujeres; un “42%” tenía entre 25 y 34 años y otro “33%” entre 35 y 44 años. Además, un “45%” no cumplía el criterio de experiencia laboral que exigía el programa.

Tras ofrecer estos números, Sánchez Robles ha señalado que las condiciones de las familias acogedoras son “exigentes”, ya que a los requisitos de un acogimiento voluntario, se le unen en estos casos una titulación específica y una experiencia previa. Así, para optar al servicio "profesionalizado" el tutor familiar debe tener un título de educación social, psicología o pedagogía infantil, y una experiencia de “como mínimo dos años”, además de “dedicación exclusiva”, entre otros requisitos. La persona acogedora profesional tiene derecho a percibir una ayuda económica.

Según la diputada, la experiencia demuestra, que el cuidado de un menor en el seno de una familia, sobre todo cuando se trata de menores de poca edad, les proporciona “un mejor desarrollo personal” que la atención en el medio residencial. Según ella, el programa de acogimiento voluntario está ofreciendo “buenos resultados”. Los últimos datos en Bizkaia hablan de “327 niños o niñas” en familias de acogida. Ahora, con el acogimiento familiar "profesionalizado" la Diputación quiere cubrir las necesidades de los menores con necesidades “especiales”.

En cuanto al perfil de estos últimos, y pese a no haber “dos casos iguales”, en líneas generales se trata de menores “preadolescentes y adolescentes con trastornos psicopatológicos, grupos de hermanos, o niños y niñas mayores de 10 años sin posibilidad de retorno a su familia de origen”, ha explicado Sánchez Robles.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La responsable foral ha señalado que el programa piloto concluyó el pasado "26 de enero" y que la intención de su departamento es "continuar" con él pese a que dicho programa se encuentra en "stand by" debido a que, en mitad de la experiencia vizcaína, se ha introducido un nuevo marco normativo como es la Ley 26/2015, de 28 de julio, de Protección a la Infancia y a la Adolescencia.

Esta ley ha tenido "consecuencias jurídicas" que han obligado al departamento a iniciar un periodo de reflexión para ver si el programa iniciado desde la Diputación vizcaína cumplía con la citada legislación. Según Robles, los servicios jurídicos forales han concluido que el programa iniciado en Bizkaia "cumple con los requerimientos de la ley" por lo que la "voluntad" de la Diputación es "continuar" con el programa "se llame como se llame", ya que lo fundamental es "proporcionar respuestas para el bienestar de los niños".

GRUPOS JUNTEROS

Todos los grupos junteros han coincidido en destacar el programa iniciado por la Diputación para dar respuesta a esta problemática social, ya que creen que el acogimiento familiar es la mejor solución para estos niños, frente a los hogares o los centros de acogida. "Al principio los metíamos, en grandes centros, luego en hogares y, ahora, en familias. Es un paso más", ha destacado el juntero socialista Juan Otermin, quien ha recordado que el programa es "de largo recorrido". "Hace bien -la Diputación- en hacer un alto en el camino, para desarrollar el programa con normalidad", porque el esfuerzo es "digno de reconocimiento" y está en la línea "acertada", ha apuntado.

Para la jeltzale Zuriñe Argatxa la valoración de esta experiencia piloto es "positiva". Ha pedido "paciencia" para poder continuar el programa "lo antes posible" y ha señalado que los condicionantes para entrar en el programa son "muy importantes". A su juicio, se debe hacer un esfuerzo para que más familias se animen a participar en el programa con campañas de sensibilización.

En este sentido, el portavoz de EH Bildu, Josu Unanue, ha pedido que se utilicen "otras vías" de sensibilización social, ya que el mensaje "no ha llegado". Se ha mostrado favorable a "seguir" con el programa, aunque ha mostrado "dudas" sobre si la Diputación tiene que "externalizar" este servicio a través de una entidad privada. Ha abogado por que la Diputación se marque un plazo para aumentar la plantilla. Tras preguntas del PP, Sánchez Robles ha informado de que la adjudicataria del concurso público fue Agintzari Cooperativa de Iniciativa Social. Previamente, Otermin se ha referido a la dificultad para que la Diputación lleve a cabo el programa por medios propios debido a la "prohibición", por ley, del Gobierno Central de permitir la contratación en el sector público



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, Nuria Atienza, de Podemos Bizkaia, ha lamentado que “sólo” una familia haya pasado el proceso de selección. Antes de constatar este hecho, ha destacado la experiencia de Gipuzkoa en donde, según ella, existen “26” familias de acogida. El programa del territorio está “muy avanzado ya que empezaron antes” ha reconocido la diputada que ha señalado que están contrastando “técnicamente” la experiencia vizcaína, tanto con la guipuzcoana como con la alavesa que ha apostado por seguir otro modelo.

Sánchez Robles, ha señalado que no cree que la falta de campañas de sensibilización sea la causa de obtener estos resultados de captación de familias, ya que se ha llegado desde “mil maneras”. Ha justificado dicha circunstancia en el escaso recorrido de la experiencia vizcaína, los “exigentes” requisitos y a que la decisión para acoger a este tipo de menores es “difícil” ya que exige “muchísima responsabilidad”. Ha finalizado con un “agradecimiento” a estas familias, ya que la decisión para apuntarse al programa profesionalizado es “terriblemente valiente”.